



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEN  
TALDEA  
GARA**

**B SAIOA**  
**AITA ETA AMENTZAT PARROKIAN**

**Delegación de Anuncio y Catequesis**  
**Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

## 1. Helburua

- Jesusek bere taldekide izateko banan-banan deitzen gaituela antzeman.

## 2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. 2. helburua, "Jainkoa Aita sortzaile bezala, Jesus Semea gurekin eta gaur lagun egiten digun eta jardunean ari den Espiritua".
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. 1. helburua, "Oinarrizko otoitzak (gurutzearen seinalea) ikasi".
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, "Katekesiko taldea, topagunea".
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, "Jesusen jarraitzaile izaten ikasi".

## 3. Saioa

- B saioa aita eta amentzat parrokian.

## 4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# B SAIOA AITA ETA AMENTZAT PARROKIAN



## Motibazioa

- Jesusek bere taldeko kide izatera, seme eta alaben entrenatzaile izatera deitzen gaitu.



## Azpimarrak

- Jesusek geure izenez ezagutzen gaitu.
- Jesusek bere ikasle izatera deitzen gaitu familian.




## Ideia nagusiak

- Apostoluei egindako deialdiari buruzko idazkia (**Mk 1, 16-18**) landuko dugu.
- Jesusen jarraitzaile izateak zer esan nahi duen aztertu amekin eta aitekin, bizi izandako esperientziak batera jartzea ekarriko duen elkarrizketari ekinez.
- Seme-alaben **entrenatzaile** (fedearen transmititzaile) bezala duten egitekoaz jabetu.
- Jesusek banan-banan egiten duen deiak zer esan nahi duen eta zein konpromiso dakarkigun landu. Eginkizun hau garatzeko tresnarik onena bizitzan eta familian dituzten esperientzia eta bizipenak direla konturatu daitezela.



## Ezinbesteko lagungarriak

- Txartelak zuriz pertsona guztientzat bana.
- Fruta-sare edo eltxo-sare bana taldekideentzat eta beste bat erdian ipintzeko.
- Klip handiak (taldekide bakoitzarentzat bat).
- Jesusen irudia.
- Jainkoaren Hitzza (txatal argitzailea), Mk 1, 16-20.
- Abestia.
- Otoitza.



## Saiorako gida

### Laguntzailearentzat



## Lehen unea. Motibazioa

Seme-alabekin batera, **Jesusen taldearen sarea** jostea proposatzen dizuegu.

- Ama/aita bakoitzari txartel bat eman; beren izena idatzi eta beren aurrean utz dezatela.
- Elkarrizketan jardungo dugu, izenaren eta Jainkoak bakoitza bere izenez deitzearen garrantziaz. Jainkoak Zakeo deitzen du: "Jesusek, hara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta»" (Lukas 19, 5).

**Izenaren garrantziaren inguruko hausnarketa.** Galderak talde txikietan lantzeko; horrela, partaidetza handiagoa eta konfiantzazko giroa ahalbideratzen da:

- Zer izan zenuten kontuan zuon alaba edo semearen izena aukeratzean? Ba al dakizue zuon ama edo aitak zergatik jarri zizuen zuon izena? Zer esan nahi du norbaitek zure izena ezagutzeak? Zer sentitzen dugu geure izenez deitzen gaituztenean? Eta horrela ez ezik, "aizu", "alkandora berdeduna"... esaten digutenean?
- Jainkoak geure izenez deitzen gaitu, ezagutzen gaituelako, benetan gutaz arduratzen delako, maite gaituelako, geure banakotasuna eta originaltasuna errespetatu egiten duelako.

(Eragileak, izena jarrita duten txartelak batu eta gerorako gordeko ditu).

## **Bigarren unea. Gaiaren azalpena**

**Gaurko deia.** Jesusen taldeko kide izateko aurrekariak, deia eta erantzun pertsonala dira. Gaur ere dei egiten digu familian, lanean, bizitzan... Mk 1, 16-20 ebanjelioko pasartea irakurri ondoren, elkarrizketan jardungo dugu talde txikietan:

- Zer dio idazkiak? Zer gertatzen da?
- Zer diosku idazkiak? Nola uler dezakegu?

Argibideak:

- Jesusek aurrea hartzen du, hurbildu egiten da, begiratu egiten ditu, eta guregan zera antzematen du...
- Bidea proposatzen du, dei egin: "KEPA, MAITE,... **zatoz eta jarraitu nire atzetik**".
- Erantzuna geure erabakiaren arabera izango da.
- Jesusen taldeko kide izatea onartzeak bere jarraitzaile bihurtzea dakar.

## **Hirugarren unea. Sarearen dinamika**

Taldea garelara eta Jesusek deitzen gaituela agertzera emateko. Laranja-sarea (edo antzekoa) ipiniko dugu erdian Jesusen irudiarekin; aita edo amei sare bana eta koloretako txartelak banatuko dizkiegu. Ondorengoa idatziko dute txartel horietan:

- Zein esperientzia (familian, parrokan, bizitzan...) izan duzue lagungarri fede bizitzan?
- Zein esperientzia izan da erabakigarri zuon seme-alaba gaur hemen, katekesian, egon dadin?
- Idatzi ondoren, sareari itsatsiko dizkiote (nahi duenak idatzitakoa batera jarriko du).

## **Laugarren unea. Egindakoa jaso eta laburtu**

Azken une honetan, taldearen egoerari ondoen egokitzen zaion aukera landu:

### **A aukera**

- Eragileak buruz behera jarriko partaideen izenen txartelak eta banan-banan deituko ditu. Jesusen izenean esango die: "(txartelean agertzen den izena), **zatoz eta jarraitu nire atzetik**".
- Partaide bakoitzak "bai, zure taldeko kide izan nahi dut", erantzungo du edo "ez dut izan nahi". Erantzuna askea da; fede bizitzan bakoitzak une jakin bat bizi du. Txartela emango diegu sarean itsas dezaten eta klipa beren sarea Jesusenari lotzeko edo Jesusen saretik gertu ala urrun jartzeko, sentitzen duenaren arabera, derrigorrez Jesusen sareari lotu gabe.

## B Aukera

- Eragileak buruz behera jarriko ditu partaideen izenak dituzten txartelak. Sarean ipiniko ditu, ideia nagusia nabarmendu: Jesusek dei egiten digula bidelagun eta bere taldeko kide izan gaitezen. Banan-banan egiten digun deia da eta banan-banan erantzun behar diogu askatasun osoz.
- Eragileak delako egun batean bere buruari egin eta baiezkoa eman zion galdera hau beren seme eta alabei egin zaiela azalduko die aitei eta amei. Une honetan beren izenak eta “zatoz eta jarraitu nire atzetik” esango du.
- Gaur egiten zaien galdera bera dela azalduko diegu gurasoei, bakoitzak erantzun dezan edo erantzun zueneko unea gogora ekar dezan.

Uneari amaiera emateko, otoitza eta gurutzearen seinalea egingo dugu. Seme-alabei eman dizkiegun azalpenak emango dizkiegu aitei eta amei ere.

**Burua**, Jainkoa agurtzen dut pentsatzen, ulertzen eta imajinatzen dudanetik.  
Badakit neurekin dagoena.

**Bihotza**, Jainkoa agurtzen dut maitasunez sentitzen dudanetik.  
Nirekin dagoela sentitzen dut.

**Ezkerreko besoa**, naizen guztiarekin agurtzen dut,  
Jainkoarekiko besarkada hasi egiten dut.

**Eskuineko besoa**, ezer utzi gabe, Jainkoarekiko besarkada itxi egiten dut.

Klikatu irudian  
bideoa ikusteko



Saioari amaiera emateko, otoitza egitea proposatzen dizuegu. Laguntzaileak gidatuko du otoitza, honetara deituz:

- a. Isilunea egin.
- b. Otoitza elkarrekin egin (partaideek letra lodiz agertzen dena erantzungo dute).
- c. “Gaur ikasitakoa...” delakoari bakarka erantzun.

Jesusek maite gaitu, beretzat oso garrantzitsuak gara.  
Jesusek ezagutu, maitatu eta estimatu egiten gaitu...  
edonon gaudela ere.

Txoriek beren kumeak zaintzen dituzten bezala,  
Jesusek zaindu egiten gaitu.  
Esan dezagun bere izena: **Jesus!**

Lehenik, begiak itxita ditugula esango dugu, geure bihotzean,  
hitzik ahoskatu gabe: **Jesus.**  
Orain, ahopeka esango dugu: **Jesus!**  
Azkenik ozen: **Jesus!**

“Jauna, ezagutzen nauzu eta neure izenez deitzen.  
Eskerrik asko, Jesus adiskide. Neuk ere ezagutzen zaitut”.

**Gaur ikasitakoa...** amek eta aitek erantzungo dute pare bat hitz esanez